

3. gaia

Fonologia

1

Fonologia

- Soinu konkretuen ekoizpena, transmisioa eta pertzepzioa fonetikari dagokio.
- Fonologia: hizketako hots fisikoen antolamendu kognitiboa, kategoria abstraktoagoetan, orokorragoetan (**fonemak**).
- Soinu konkretuak kategoria abstraktuetan banatzen dira. Kategoria hauek **fonemak** dira.

2

Fonologia

- Bi hotsen arteko ezberdintasuna kontrastiboa izan daiteke, hots bat bestearekin trukaturata bi hitz ezberdin aurki badaitezke.

Adib.: **ero-erro** [r]-[r]
su-zu [s]-[s]

3

Fonologia

Gazteleraz:

peso-beso /p/-/b/
tía-día /t̃/-/d̃/
cama-gama /k/-/g/
pero-perro /ɾ/-/r/
cama-cana /m/-/n/

4

Fonologia

- Ingelesean:

den 'estalgune'- then 'orduan'	[d]-[ð]
den 'estalgune'- ten 'hamar'	[d]-[t]
pig 'txerri'- big 'handi'	[p]-[b]
coat 'beroki'- goat 'ahuntz'	[k]-[g]
Sue 'Sue'- zoo 'zoologikoa'	[s]-[z]

5

Fonologia

- Bi hitz ezberdintzen badira bakarrik soinu batengatik, bi soinu horien artean **erlazio kontrastiboa** dago. Bi **fonema** ezberdin dira.
- Bi hotsen arteko ezberdintasuna kontrastiboa dela jakiteko **pare minimoak** behar dira: leku berean hots bakarrean bereizten diren hitz-bikoteak.

6

Fonologia

- Bi hots kontrastiboak badira, haien **banaketa librea** edo **askea** dela esaten da.
- Hau da, fonemak banaketa askean daude. Askatasuna daukate edozein tokitan agertzeko, eta hortik datoz kontrasteak eta bikote minimoak.

7

Fonologia

- Bi hotsen arteko ezberdintasuna **ez-kontrastiboa** izan daiteke.
- Ez dira bi hitz ezberdintzen hots horiengatik.
- Soinu ez kontrastiboak **alofonoak** dira.
- **Alofonoak fonema baten aldagaiak dira, bakoitza ingurune zehatz batzuetan ahoskatzen dena.**

8

Fonologia

Banaketa osagarrian daude:

Aldagai bat testuinguru zehatz batzuetan agertzen da, eta bestea beste testuinguru batzuetan.

Banaketa aurreikusteko modukoa da.

9

Fonologia

- Fonemen banaketa ezin da aurreikusi. Askea da. Banaketa askea.
- Alofenoen banaketa aurreikus daiteke. Badakigu noiz daukagun aldagai bat eta noiz bestea. Banaketa osagarria.

10

Fonologia

Adibideak:

Euskaraz eta gazteleraz, **herskari ahostunen** eta **hurbilkarien** arteko alternantzia:

Fonologia

- Fonemak, soinu konkretoak ez bezala, marra etzanen artean idazten dira. Alofonoak, kortxeteen artean. Gazteleraz:

/b/: [b], [β]

/d_l/: [d_l], [ð]

/g/: [g], [ɣ]

/n/: [m], [ɱ], [ɲ], [ɳ], [n], [ɲ], [ɲ]

/s/: [s], [ʃ], [ʃ]

12

Fonologia

- Herskariak:

- 1) Etenaldi baten ostean
bide, **d**ama, **g**uraso [b] [d] [g]
- 2) Sudurkari baten ostean
en**b**or, **a**ndere, aing**e**ru [b] [d] [g]
[d] herskaria ere // baten ostean.

13

Fonologia

- Hurbilkariak:

Beste ingurune guztietan:

- 1) bokal artean
zubi, cada, **s**agu [β] [ð] [ɣ]

14

Fonologia

- 2) kontsonante baten ostean, sudurkaria ez bada

albo, parda, argal [β] [ð] [ɣ]

- 3) kontsonante baten aurrean

hablar, padre, agradable [β] [ð] [ɣ]

15

Fonologia

Ingurune hauek hitz artean ere betetzen badira, hurbilkariak agertzen dira:

nire bidea, la **d**ama, bere **g**urasoak [β] [ð] [ɣ]

mal vecino, por **d**ónde, ver **g**anar [β] [ð] [ɣ]

la brisa, su **d**rama, praka **g**rixak [β] [ð] [ɣ]

Hau da, nahiz eta hitz hasieran egon, ez badago etenaldirik, hurbilkariak.

16

Fonologia

[b], [β] alofonoak dira /b/ fonemarenak.

[d], [ð] alofonoak dira /d/ fonemarenak.

[g], [ɣ] alofonoak dira /g/ fonemarenak.

17

Fonologia

- /n/-ren ahoskuneko asimilazioa:

Anplitudea, anfiteatro, encima, entitate, indabak, ansia, hinchado, aingira, aunque.

/n/: [m], [ɱ], [ɲ], [ɳ], [ɺ], [ɽ], [ɿ]

18

Fonologia

Gazteleraz:

/s/ hobikari ahoskabea da. Baina zenbat alofono?

- [s] hobikari ahoskabea
sí, suma, casa, esperar...

19

Fonologia

- Kontsonante horzkari baten aurrean, horzkari:

hasta, desde [s̺]

- Kontsonante ahostun baten aurrean, ahostun:

rasgo, es barato, desde [s]

20

Fonologia

Euskeraz:

/s̺/ eta /s̠/ hobikariak dira, baina horzkari baten aurrean, horzkari:

asto [s̺]

buzti [s̠]

ahostunak:

hasberri, has gaitezen [s̠]

horretaz gain [s̺]

21

Ariketa

- Esan hurrengo ikur fonetiko bikoteak fonema ezberdinak ala alofonoak diren, gaztelerarako eta euskararako. Arrazoitu, adibideen bitartez:

l - λ n - m n - ñ n - ñ λ - j

- Nola dakigu [ŋ] ez dela fonema bat gazteleraz eta euskeraz?

- Hurrengo bikote bakoitzeko bi ikurrak fonema ezberdinak dira gazteleraz eta euskeraz?

t - t̺ β - β̺ s - z s̺ - j̺ s - s̺

Fonologia

- Hizkuntza baten fonologia, segmentu mailako ezaugarriak gutxienez, hurrengo atalez osatzen da:

- Fonemak eta fonemen alofonoak.
- Fonemen banaketa fonotaktikoa (jakitea silaba bateko zein guneeetan ager daitezkeen fonemak).
- Fonemek dituzten alternantziak: ezabaketak, epentesiak, asimilazioak, disimilazioak, ahultzeak edo lenizioak, indartzeak.

23

Fonologia

- Fonotaxia

Fonemen banaketa silaba baten guneeetan. Fonemak agertzeko murriztapenak.

Adibidez, euskaraz:

Silaba hasieran, edozein kontsonante ager daiteke. Bi kontsonante agertzen direnean silaba hasieran, bigarrena /l/ edo /r/ da.

Adibideak:

24

Fonologia

Silaba bukaeran:

Silaba bukaeran bi kontsonante daudenean:

25

Fonologia

- Egitura silabikoa:

Silabek **gune** edo **nukleo** bat dute.


Gunea edo nukleoa bokal bakar batez edo bi bokalez (hau da, diptongo batez) dago osatuta.

Nukleoaz aparte, **silaba hasiera** eta **koda** daude, kontsonantez osatuta.

26

Fonologia

Silaba batean **hasiera** eta **rima** daude. Riman nukleoa eta koda daude.



27

Fonologia

- Silabaren eta silabifikazioaren egitura **sonoritatearen** kontzeptuak gidatzen ditu. Sonoritate eskala bat dago, eta horren arabera banatzen dira segmentuak silabetan.
- Sonoritatea ez da ozentasuna edo ahostasuna zentzu honetan, baizik eta **airearentzako uzten den pasartea**.

28

Fonologia

Sonoritate eskala:

6 bokal irekia	a
5 arteko bokala	e o
4 bokal itxia	i u
3 urkariak	l λ r r
2 sudurkariak	m n ŋ
1 trabariak	f s x tʃ b d ʒ p t̚ k, etab.

29

Fonologia

- Segmentoen antolaketa silaba batean patroia baten arabera:

Silaba hasieran, kontsonanteak normalean. Beraz, sonoritate gutxi. Nukleoan, bokalak. Beraz, sonoritate asko.

pa.to, bo.ca, gi.zon, e.ma.ku.me

30

Fonologia

- Silaba haierako bi kontsonanteen artean, sonoritatearen eskala aldetik 2 graduko ezberdintasuna eskatzen da.

Ez dago trabari + sudurkari hasierarik, baizik eta trabari + urkari.

froga, plater, gradu, tratu

Gazteleraz: *prueba, plieque, brazo, blanco, franco, flojo, tronco, drama, cromó, claro, grado, glicerina*

31

Fonologia

Kodako kontsonanteek silaba hasierako kontsonanteek baino sonoritate haundiagoa dute.

por.tu, sal.to, an.de.re

Kodako /s/ patroi honen salbuespena da:
is.la, as.ma.tu,

32

Fonologia

- Silaba hasiera eta bukaeraren artean asimetria dago. Kodan ager daitezkenak askoz gutxiago dira.
- Gainera, ikusi dugu silaba bukaerako kontsonanteak ahulagoak direla hasierakoak baino.

33

Fonologia

- Gazteleraz eta euskeraz:

/s/ eta /n/-ren alofonoak, asimilazioen ondorioz.

Gazteleraz:

silaba bukaerako /s/-ren hasperenketa,
silaba bukaerako /d/-ren ahultzea (frikari edo hurbilkari bihurtzea, edo ezabatzea)

34

Fonologia

Alternantzia edo prozesu fonologiko nagusiak

Asimilazioa, disimilazioa, epentesia, ezabaketa, ahultzea edo lenizioa, indartzea

35

Fonologia

- **Asimilazioa**

Prozesu bat non segmentu batek aldameneko beste segmentu baten ezaugarriak hartzen dituen.

Kontsonanteen artean, bokalen artean edo kontsonante eta bokalen artean gerta daiteke.

36

Fonologia

Ohikoena **asimilazio erregresiboa** da, non segmentu batek hurrengoaren artikulazioa aurreratzen duen eta honen ezaugarriak hartzen dituen.

C ← C

Beste modu bat ulertzeko: asimilazio aurreratzaila (*anticipatory assimilation*)

37

Fonologia

Adibideak:

•Kontsonanteen artean:

- /n/-ren asimilazioa hurrengo kontsonantearen ahoskunerari (eta /s/-rena horzkari baten aurrean).

- /s/-ren ahostuntzea

Asimilazio erregresiboak dira hauek.

38

Fonologia

• Bestea **asimilazio progresiboa** izango litzateke, edo. Kontsonante batek hurrengo kontsonante bati pasatzen dizkio ezaugarriak:

C → C

Ez da erregresiboa bezain arrunta.

39

Fonologia

Adibideak:

ez du [eʃ̺ tu]

ez gara [eʃ̺ kara]

ez ba zoaz [eʃ̺ pa ʃoas̺]

40

Fonologia

• Bokal bat hurrengo bokalari asimilatu dakioko:

esku-e, mutil-e

41

Fonologia

• Kontsonante bat bokalari asimilatu:

Ohikoena, sabaikari bihurtzea: horzkaria, hobikaria edo belarra den kontsonante bat sabaikari bihurtzea aurreko bokal baten aurrean (i, e, j)

Latinetik gaztelerara:

seniõre > señor

gemma > yema

42

Fonologia

Euskeraz, sabaikaritasun progresiboa gertatzen da.

aita [aj̥t̪a], ito [it̪o], pisu [pi̯ʝu], mila [mi̯la],
min [mi̯n]

43

Fonologia

- Asimilazioaren zena: aldameneko bi fonemen ezaugarriak guztiz ezberdinak izan behar, bat edo bi berdinak izatea (hiru ezaugarri berdin izatekotan, soinu bera izango litzateke).
- Arrazoiak: hiztunaren aldetik soinuak ekoizterakoan artikulazioa erraztea; esfortzuak aurrezteak.
- Asimilazioaren zena artikulaziozko mugimenduen koordinazio falta da. Soinu baten artikulazioa bukatu baino arinago, hurrengo soinuaren artikulazioa hasten da.

44

Fonologia

• Disimilazioa

Berdinak edo antzekoak diren bi fonema aldamenean egotea egokitzen bada, hauek ongi ezberdintzearen ezaugarriren bat aldatzea.

Arrazoiak:

Entzulearen aldetik soinuak hobeto antzematea; ulermena erraztea; prozesatzeko esfortzuak aurrezteak.

45

Fonologia

Arrazoiak (jarraipena):

fonema berdina aldamenean bi aldiz egokitzen denean, hiztunaren/ekoizlearen aldetik ere hobesten da fonema berdina ez errepikatzea, zaila delako baten amaiera eta bestearen hasiera ongi egitea, bereiztea.

Disimilazioa ez da asimilazioa bezain arrunta.

46

Fonologia

Adibide bat: *-al* atzizkia *-ar* bihurtzen da erroa /l/-z bukatzen denean edo azken kontsonantea /l/ denean:

semanal, anual, mensual, gradual

angular, regular, similar, velar, alveolar, uvular

47

Fonologia

Euskeraz (euskalki batzuetan):

Izenetan, erroaren azken /e/ edo /o/ mugatzaileen aurrean /i/ eta /u/ bihurtzea:

ume-a , ume-ak > umia, umiak
beso-a, beso-ak > besua, besuak

Erroaren azken /a/ ere /e/ edo /i/ bihurtzea mugatzaile singularraren aurrean:

alaba-a > alabea/alabia (hizkeraren arabera)

48

Fonologia

• Epentesia

Hitz edo morfema batean bokal bat edo kontsonante bat sartzea, berezkoa ez dena.

Euskeraz: *berri[ɫ]ja, argi[ɫ]ja*
barri[ɟ]a, argi[ɟ]a edo *barri[ʃ]a, argi[ʃ]a*
esku[b]a, buru[b]a (Arbizun, Etxarrin)

/i/ bokal itxi eta aurrekoaren ondoren ("bokal sabaikaria" ere esaten da), kontsonante sabaikari bat ([ɫ]) edo hobiatzeko bat ([ɟ], [ʃ]) sartzen da.

/u/ bokal itxi, atzeko eta biribilduaren ondoren, kontsonante biezpainkaria sartzen da, [b]. Ezpainen ixte edo gerturatzeagatik.

49

Fonologia

• Gazteleraz:

/e/-ren epentesia /s/-z hasten diren maileguetan:

e-strés, e-slavo, e-slogan

50

Fonologia

Beste kasu bat: /d/-ren epentesia gaztelerazko etorrikizuneko edo baldintzazko aditz formetan:

ponéré > ponré > pondré
teneré > tenré > tendré
saliré > salré > saldré

51

Fonologia

• Ahultzea eta ezabaketa

Artikulazioaren erlajazioa, ahultzea da.

Ahultzearen muturreko pausua, ezabatzea.

Normalean hizkera ez-formaletan sortzen dira, eta beste hizkera, estilo edo erregistroetara hedatzen bada, hizkuntzaren eredu bihurtzen da.

52

Fonologia

• Euskeraz, bokal arteko /d/ eta /g/-ren ahultzea eta erorketa:

edo > eo
-ago > ao
-egi > ei

53

Fonologia

Gazteleraz ere, [ð]-rekin, partizipioetan.
[amaðo] > [amao]

Bestalde, gazteleraz, dialekto batzuetako /s/-ren hasperenketa (edo galera) silaba bukaeran, batez ere hitz bukaeran.

54

Fonologia

Diakronikoki, latinetik gaztelerara herskari ahoskabeetatik ahostunetara pasatzea, eta hauetatik hurbilkarietara, bokal artean:

[ami:ka] > [amíga] > [amíya]

55

Fonologia

- **Indartzea**

Gazteleraz, hitz hasierako erdikontsonanteen indartzea, kontsonanteak bihurtuz, eten baten ostean. Dialektoen arabera, edo enfasiaren arabera ere:

hielo [jelo] ~ [j̄elo]

hueso [wesɔ] ~ [ʷwesɔ]

56

Ariketa

Esan ze prozesu gertatu den kasu bakoitzean, gertaketaren arrazoia emanaz.

len ðen > len̄ ðen

puk tot > pu tot

bil loto > bir loto

puk-mon > pukamon

rasna > rahna

57